



bizkaiko garraio partzuergoa  
consorcio de transportes de bizkaia

Pliego de prescripciones técnicas para la contratación, con empresas distribuidoras y con carácter no exclusivo, de la gestión de distribución, venta y recaudación de títulos de transporte emitidos en formato tarjeta precortada por el Consorcio de Transportes de Bizkaia.

Baldintza teknikoaren plegua, enpresa banatzaileekin eta eskusibitaterik gabe, Bizkaiko Garraio Partzuergoak, aurretiaz moztuta igorritako bidaia txartelen banaketaren, salmentaren eta diru bilketaren kudeaketa kontratatzeko

#### 1.- OBJETO DEL PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARTICULARES.

El objeto del presente Pliego de Prescripciones Técnicas Particulares es establecer las condiciones técnicas que han de regir la contratación, con distintas empresas de distribución, de la gestión de distribución, venta y recaudación, a través de los puntos de venta, de títulos de transporte "creditrans" y otros billetes que el CTB decida, emitidos en formato tarjeta precortada por el Consorcio de Transportes de Bizkaia (En adelante **CTB**).

La adjudicación del contrato se realizará a todas las empresas que reúnan los requisitos establecidos en los pliegos, y se comprometan a realizar el servicio en los precios fijados en los mismos, dichos precios no son susceptibles de variación en las ofertas.

#### 1.- BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN PLEGUAREN XEDEA

Baldintza Tekniko Berezien Plegu honen xedea honakoa da: zenbait enpresa banatzailearen kontratazioa arautuko duten baldintza teknikoak ezartzea, enpresa banatzaile horiek Bizkaiko Garraio Partzuergoak (aurrerantzean BGP) aurretiaz moztuta igorritako "Creditrans" eta beste bidaia txartelen banaketa, salmenta eta diru bilketa kudeatu ditzaten, dituzten salmenta puntuetan.

Kontratua adjudikatuko zaie pleguetan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten eta zerbitzua plegu horietan finkatutako prezioan emateko hitza ematen duten enpresa guztiei. Prezioa ezin izango da eskaintzetan aldatu.



Los trabajos que contempla este Pliego incluyen la recepción, depósito, almacenaje, distribución, venta, recaudación y liquidación de los billetes "creditrans" y otros, así como la retirada y entrega a CTB de las tarjetas deterioradas recogidas y de las usadas en operaciones de compra con saldo remanente.

## 2.- ANTECEDENTES

PRIMERO: El contrato del servicio de gestión de distribución, venta y recaudación de títulos de transporte Creditrans, con diferentes empresas distribuidoras se formalizó el 1 de enero de 2007 por 2 años, habiendo sido posteriormente objeto de prórroga.

SEGUNDO: La experiencia de todos los contratos suscritos hasta la fecha desde su origen en el año 2000, ha sido altamente positiva dado que además del buen servicio prestado, se ha cubierto satisfactoriamente el mercado creditrans con los puntos de venta, lo que indica la conveniencia por razones técnicas y para la continuidad del funcionamiento y buen servicio al usuario del Sistema de Transporte Público de Bizkaia de garantizar "cuanto menos" la actual red de puntos de venta, ampliandola si ello fuera posible

TERCERO: El Consorcio de Transportes de Bizkaia prevé la puesta en marcha de la tarjeta sin contacto "BARIK" para el año 2011, lo cual podrá llegar a suponer la desaparición del creditrans y otros billetes emitidos por el CTB, soportados físicamente en tarjeta de cartón, lo cual afectará lógicamente al objeto de este contrato, aunque queda expresamente excluida su distribución del mismo.

Pleguan lan hauek aurreikusten dira: "Creditrans" eta beste txartelak hartzea, gordetzea, biltegiatzea, banatzea, saltzea, dirua biltzea eta likidatzea, baita txartel hondatuak eta beste bat erosteko erabilitako saldo gerakindun txartelak biltzea eta Bizkaiko Garraio Partzuergoari ematea ere.

## 2.- AURREKARIAK

LEHENENGOA.- Creditrans garraio-tituluen banaketa, salmenta eta diru-bilketaren kudeaketa zerbitzua enpresa banatzaile desberdinekin formalizatu zen 2007eko urtarrilaren 1ean, bi urterako eta gero luzatu egin da.

BIGARRENA.- 2000. urtean sortu zenetik, gaur arte sinatutako kontratu guztien esperientzia oso positiboa izan da. Izan ere, emandako zerbitzu onaz gain, creditrans merkatuari ondo erantzun zaio, salmenta puntuekin. Horregatik, komenigarria da, arrazoi teknikoak direla medio, eta Bizkaiko Garraio Publikoaren Sistemaren jarduera ona eta erabiltzailearekiko zerbitzu egokia bermatzeko, gutxienez gaur eguneko salmenta-sarea mantentzea eta, ahal izanez gero, gehitzea.

HIRUGARRENA: Bizkaiko Garraio Partzuergoak 2011rako aurreikusi du "BARIK" kontaktu gabeko txartela abian jartzea. Horrek, Creditrans eta BGPK sortu dituen kartoizko beste txartel batzuk desagertzea ekar lezake, eta, ondorioz, kontratu honen xedean eragina izango du. Hala ere, berariaz baztertua dago kontratuan halakoak banatzea.



### 3. REQUISITOS DE LOS CONTRATISTAS (Solventía técnica)

Las empresas distribuidoras deberán contar con la infraestructura necesaria (instalaciones, medios de transporte y reparto, puntos de venta y distribución) para posibilitar a través de su red de comercialización la venta de tarjetas "creditrans" y otras emitidas por el CTB, y que cumplan y acrediten al menos uno de los dos requisitos siguientes:

- Un volumen económico de ventas de billetes consorciados de al menos el 9% del total de ventas realizadas, en puntos de venta ajenos a la red de transporte, excluida la red de cajeros automáticos, en cualquiera de los años 2007 y 2008.
- Un mínimo de 80 puntos de venta acreditados, con relación detallada de los mismos. Situados en el Territorio Histórico de Bizkaia.

La documentación acreditativa de estos extremos habrá de presentarse en el sobre "A".

### 4. ALCANCE DE LA PRESTACIÓN

#### 4.1. Introducción

CTB precisa de los servicios de empresas distribuidoras, para la comercialización de las tarjetas "creditrans" y otras que emite o pudiera emitir en el futuro, al objeto de prestar servicio de venta a toda la geografía bizkaína, puesto que el sistema de transporte público y su habi-

### 3. KONTRATISTEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK (Kaudimen teknikoa)

Enpresa banatzaileek, beren merkaturatze-sarearen bidez, "Creditrans" eta BGPk sortutako beste txartelak saltzeko behar den azpiegitura (instalazioak, garraio eta banaketa moduak, eta salmenta eta banaketa puntuak) eduki beharko dute. Eta, gutxienez, honako baldintza bi hauekiko bat bete beharko dute:

- 2007 edo 2008an, salmenta guztien %9 Partzuergoaren txartelen salmentatik ateratako dirua izan beharko da eta kopuru hori garraio-saretik kanpoko salmenta-puntuetan lortutakoa izan beharko da; kutxa automatikoen sarea ez da horretan sartzen.
- Gutxienez 80 salmenta puntu egiaztatuta edukitzea, haien zerrenda zehatza eginez. Puntu horiek Bizkaiko Lurralde Historikoan egon behar dute.

Baldintza horiek egiaztatzen dituen dokumentazioa "A" gutun-azalean aurkeztu behar da.

### 4. ZERBITZUAREN IRISMENA

#### 4.1. Sarrera

Bizkaiko Garraio Partzuergoak enpresa banatzaileen zerbitzuak behar ditu jaulkitzen dituen "Creditrans" txartelak eta etorkizunean jaulki ditzakeen beste batzuk merkaturatzeko. Horren helburua da salmenta zerbitzua ematea Bizkaiko lurralde guztian; izan ere, garraio



tual red de puntos de venta asociado no llega a cubrir toda su extensión.

#### 4.2. Contenido de la prestación

Cada una de las empresas distribuidoras se obliga a distribuir y vender todos los tipos de billetes “creditrans” que *CTB* emita, a través de una red de locales o puntos de venta.

Asimismo, distribuirán y venderán todos aquellos billetes que *CTB* emita, siempre que así lo autorice expresamente *CTB*.

Igualmente, se comprometen al cumplimiento de sus obligaciones contractuales con la diligencia y atención que requiere el servicio público de transporte colectivo de viajeros.

La distribución de la tarjeta sin contacto “BARIK” queda excluida expresamente de este contrato, no teniendo derecho el adjudicatario a compensación económica alguna por la supresión de la venta de títulos de transporte Creditrans y otros que emita el *CTB*, a partir de la puesta en marcha de aquella.

#### 4.3. Realización de la prestación

##### 4.3.1. Pedidos

4.3.1.1. Las distintas empresas distribuidoras realizarán un pedido mensual de tarjetas “creditrans” y otras, en su caso, a *CTB*, siguiendo el formato establecido por el mismo.

4.3.1.2. Excepcionalmente existirá la posibilidad

de un sistema de venta directa al público en el espacio público o en el espacio privado, siempre que el sistema de venta directa al público no sea el único sistema de venta de billetes de transporte público.

#### 4.2. Zerbitzuaren edukiak

Enpresa banatzaile bakoitzak Bizkaiko Garraio Partzuergoak jaulkitako “Creditrans” txartel mota guztiak banatzeko eta saltzeko betebeharra du, lokalen edo salmenta puntuen sare baten bidez.

Halaber, BGPk sor ditzakeen txartel mota guztiak banatu eta salduko ditu, betiere, BGPk horretarako berariazko baimena eman badiu.

Halaber, hitzematzen dute bidaiaren garraio zerbitzu publikoan beharrezkoa den arduraz beteko dituztela kontratuko betekizunak.

“BARIK” kontaktu gabeko txartelaren banaketa, kontratu honetatik kanpo geratzen da espreski, eta adjudikazio-hartzaileak ez du inolako konpentsazio ekonomikorako eskubiderik izango, hori abian jartzen denetik gertatuko den Creditrans eta BGPk ematen dituen beste garraio-agiri batzuen salmentaren desagertzea dela eta.

#### 4.3. Zerbitzua

##### 4.3.1. Eskaerak

4.3.1.1. Enpresa banatzaileek “Creditrans” txartelak eta, hala badagokio, beste batzuk eskatuko dizkiote hilero BGPri, horretarako ezarrita dagoen formatuaren arabera.

4.3.1.2. Salbuespen gisa, hilean eskaera bat



dad de realizar más de un pedido mensual cuando haya circunstancias especiales que lo justifiquen.

4.3.1.3. *CTB* hará entrega del mismo en un plazo de cinco días hábiles a partir de la fecha de presentación del pedido. El material será facilitado a la empresa distribuidora debidamente empaquetado y precintado, especificando en el exterior de los paquetes la numeración, el número total de unidades y su diferenciación por lotes. Los billetes vendrán en tacos de 50 unidades, termo-sellados.

4.3.1.4. *CTB* adoptará las medidas precisas, con garantía de eficacia en la confección y empaquetado de los billetes, de manera que no se produzcan errores en las distintas remesas.

4.3.1.5. La empresa distribuidora podrá comprobar el contenido de las sucesivas remesas que se le entreguen, poniendo en conocimiento de *CTB* cualquier anomalía que se detecte, tanto por exceso como por defecto, del cual se levantará acta de sobra o falta, en presencia de un representante de *CTB*, para constancia del mismo a los efectos económicos que procedan.

#### 4.3.2. Abono de las tarjetas.

4.3.2.1. Mensualmente se enviarán al *CTB*, en el formato y con los datos especificados por el mismo, las ventas realizadas en el mes anterior, que deberán ingresarse en la cuenta del *CTB* conforme a lo estipulado en los puntos siguientes. Dicho envío se efectuará en los diez primeros días del mes siguiente al de la liquidación.

Los billetes declarados como vendidos en las

baino gehiago egin ahal izango dute banatzaileek, egoera bereziek hala eskatuta.

4.3.1.3. BGPk eskaera egin eta bost laneguneko epean emango ditu eskatutako txartelak. Materiala behar bezala paketatuta eta zigilatuta emango zaie enpresa banatzaileei, eta, paketeen azalean, ondo zehaztuta agertuko dira zenbakiak, txartel kopuru osoa eta loteak. Txartelak 50eko sortatan egongo dira, termo-zigilatuta.

4.3.1.4. BGPk hartu beharreko neurriak hartuko ditu, txartelak egitean eta paketatzean eraginkortasuna bermatzeko, txartel sortetan hutsegiterik gerta ez dadin.

4.3.1.5. Enpresa banatzaileek jasotzen dituzten sorten edukia egiaztatu ahalko dute, eta irregulartasunen bat dagoela ikusten badute – gehiago edo gutxiago dagoelako–, Bizkaiko Garraio Partzuergoari jakinaraziko diote; sobera edo falta akta egingo da, BGPren ordezkari baten aurrean, irregulartasun horren ondoriozko eragin ekonomikoak idatziz jasota gera daitezzen.

#### 4.3.2. Txartelen ordainketa

4.3.2.1. BGPri hilero bidaliko zaizkio aurreko hilabetean izandako salmentak, hark zehaztutako formatuan eta datuekin, eta BGPren kontuan sartuko dira hurrengo puntuetan ageri den bezala. Bidalketa hori likidatutako hilabetearen hurrengoaren lehenengo hamar egunetan egingo da.

Hileroko likidazioetan salduzat ageri diren



liquidaciones mensuales correspondientes, no podrán ser devueltos, en ningún caso, al *CTB*, a excepción de lo indicado en el apartado 4.3.3.

4.3.2.2. Una vez recibida la información anterior, el *CTB* procederá a su revisión e identificación de errores, que deberán ser subsanados por la empresa distribuidora.

Admitida como conforme dicha información, el *CTB* remitirá un documento que servirá como base para la elaboración de la correspondiente factura y liquidación mensual.

4.3.2.3. La cantidad a ingresar será el valor de las tarjetas vendidas en el mes a liquidar, del que se deducirán los siguientes importes:

- Importe de las tarjetas defectuosas canjeadas en el mes que se liquida
- Importe de las tarjetas con saldo remanente utilizadas en la compra de nuevas tarjetas
- Comisión correspondiente a las ventas realizadas en el mes que liquida, una vez deducidos los dos importes anteriores.
- Comisión correspondiente al canje de las tarjetas defectuosas del mes en el que se liquida.

El ingreso en la cuenta del *CTB* debe realizarse antes del último día del mes siguiente al de liquidación.

4.3.2.4. En todo caso, el suministro de un nuevo pedido estará supeditado a la correcta liquidación de las ventas mensuales.

txartelak ezin zaizkio inolaz ere BGPri itzuli, 4.3.3. atalean adierazitako kasuan salbu.

4.3.2.2. Aipatutako informazioa jaso ondoren, BGPk azertu eta akatsak identifikatuko ditu, eta enpresa banatzaileak konpondu egin beharko ditu.

Informazioarekin ados badago, BGPk faktura eta hileko likidazioa egiteko oinarritzat hartuko den dokumentua igorriko du.

4.3.2.3. Sartu beharreko dirua likidatu behar den hilabetean saldutako txartelen balioa izango da; hortik honako zenbatekoak kenduko dira:

- Likidatzen den hilabetean trukatu diren txartel akastunen zenbatekoa.
- Txartel berriak erosteko erabili diren txartel soberakindunen zenbatekoa.
- Likidatzen den hilabetean izandako salmenten komisioa, aurreko zenbateko biak kendu eta gero.
- Likidatzen den hilabetean trukatu diren txartel akastunen komisioa.

Likidatzen den hilabetearen hurrengoaren azken eguna baino lehen egin behar da diru-sarrera BGPren kontuan.

4.3.2.4. Nolanahi ere, eskaera berri bat jasotzeko, hileko salmentak zuzen likidatuta egon behar dira.



#### 4.3.3. Vigencia de los títulos

4.3.3.1. En caso de que se anule la vigencia de los títulos, por cambio de su precio, de la modificación de su formato o diseño, o cualquiera otra causa, así como para la resolución o finalización del contrato, se practicará la correspondiente liquidación definitiva de tarjetas, para fijar las cantidades de las que pueda ser deudor o acreedor *CTB* o la empresa distribuidora. Se habilitará un plazo de un mes para la fijación de este saldo.

4.3.3.2. En el plazo de un mes a partir de la fecha de fijación y aprobación definitiva del saldo a que se refiere el párrafo anterior, la empresa distribuidora hará entrega a *CTB* de las tarjetas de “creditrans” u otras emitidas por el *CTB* que tenga en sus almacenes, así como de las canjeadas a los expendedores y a los usuarios.

#### 4.3.4. Precio de venta de los títulos

4.3.4.1. Queda terminantemente prohibida la alteración del precio de los billetes establecido por el *CTB*, pudiendo ser causa de rescisión de contrato si se trata de la empresa distribuidora o de exclusión si se trata de un punto de venta.

Ese precio de venta al público señalado por el *CTB* para cada título incluye la utilización de los servicios de Transportes y el IVA.

4.3.4.2. La empresa distribuidora se obliga a admitir las tarjetas “creditrans” u otras emitidas, con el precio de venta al público que establezca *CTB*. Éste podrá modificar por razón de

#### 4.3.3. Txartelen iraunaldia

4.3.3.1. Txartelen iraunaldia baliogabetzen bada –besteak beste, prezioa aldatzen delako, formatua edo diseinua aldatzen delako eta enpresa banatzaile baten kontratua deusezten edo amaitzen delako–, txartelen behin betiko likidazioa egingo da, Bizkaiko Garraio Partzuergoak eta enpresa banatzaileak zor dituzten edo kobratu behar dituzten diru kopuruak ezartzeko. Horretarako, hilabeteko epea izango dute.

4.3.3.2. Behin aurreko paragrafoan aipatutako diru kopurua ezarrita eta behin betiko onartuta, enpresa banatzaileak hilabeteko epea izango du, biltegietan dituen “Creditrans” edo BGPk sortutako beste txartelak eta saltzaileei eta erabiltzaileei trukaturakoak Bizkaiko Garraio Partzuergoari emateko.

#### 4.3.4. Txartelen salmenta prezioa

4.3.4.1. Guztiz debekatuta dago BGPk ezarritako txartelen prezioa aldatzea; enpresa banatzailearen kasuan kontratua desegitea ekar dezake eta, salmenta puntua bada, salmentatik baztertuta gelditzea.

BGPk ezarritako titulu bakoitzaren publikoarentzako salmenta prezioan sartuta daude garraio zerbitzuen erabilera eta BEZ.

4.3.4.2. Enpresa banatzaileak BGPk ezarritako publikoarentzako salmenta prezioarekin onartu beharko ditu “Creditrans” txartelak edo gainontzekoak. Interes publikoa dela eta,



interés público las características del servicio objeto de este contrato. Cualquier cambio que implique la retirada del mercado de las tarjetas será comunicado a la empresa distribuidora tan pronto como sea posible, de forma que puedan ser informados adecuadamente los titulares de los puntos de venta de la red de distribución.

4.3.4.3. La empresa distribuidora viene obligada a admitir cualquier modificación de estos títulos, que afecte a su precio de venta, formato u otra característica del mismo, comprometiéndose en este caso a canjear a través de su red de distribución, durante el periodo que se estipule, los títulos caducados en poder de los usuarios, por los nuevos que se emitan.

#### 4.3.5. Canje de tarjetas

La empresa distribuidora no efectuará operaciones de canje ni de venta de tarjetas aceptando tarjetas usadas con saldo remanente hasta que no sea expresamente autorizada por CTB para el inicio de dicha actividad.

#### 4.3.6. Puntos de venta e información sobre pedidos servidos

4.3.6.1. La empresa distribuidora entregará una relación detallada de su red de locales o puntos de venta.

4.3.6.2. El CTB se reserva el derecho de excluir a cualquier punto de venta de la correspondiente empresa distribuidora, en razón de una mala calidad de servicio al usuario, alteración del precio de venta de los títulos o incumplimiento de las normas establecidas por el

Partzuergoak kontratuaren xede den zerbitzuaren ezaugarriak aldatzeko aukera izango du. Txartelak merkatutik kentzea eskatzen duen edozein aldaketa gertatuz gero, ahal bezain laster jakinaraziko zaie enpresa banatzaileei, banaketa sareko salmenta puntuen jabeek horren berri izan dezaten.

4.3.4.3. Enpresa banatzailea txartelen edozein aldaketa onartzera behartuta dago; esate baterako, salmenta prezioa, formatua edo txartelen beste edozein ezaugarri. Horrez gain, banaketa sare osoan erabiltzaileei iraugitako txartelen truke igortzen diren txartel berriak emateko konpromisoa hartzen dute, erabakitzen den epean.

#### 4.3.5. Txartelen trukea

Enpresa banatzaileak ez du saldo soberakina duen txartel erabilirik onartuko txartelak trukatzeko edo saltzeko, Bizkaiko Garraio Partzuergoak horretarako berariazko baimena eman arte.

#### 4.3.6. Salmenta puntuak eta emandako eskaerei buruzko informazioa

4.3.6.1. Enpresa banatzaileek banaketa sareko lokalen edo salmenta puntuen zerrenda zehatza emango dio Bizkaiko Garraio Partzuergoari.

4.3.6.2. BGPk beretzat gordetzen du enpresa banatzailearen edozein salmenta puntu baztertzeko eskubidea, baldin eta erabiltzaileari kalitate txarreko zerbitzua ematen badio, txartelen salmenta prezioa aldatzen badu edo BGPk ezarritako arauak betetzen ez baditu.





## CTB.

4.3.6.3. La empresa distribuidora dispondrá bajo su responsabilidad de las tarjetas de "creditrans" y otras emitidas por *CTB* que reciba en depósito, cediéndolas con reparto domiciliario por cuenta suya a los puntos de venta. Cualquier variación en los almacenes o emplazamiento de los locales de la red será comunicada a *CTB* con 10 días de antelación.

4.3.6.4. Aún cuando las tarjetas de "creditrans" se podrán expender en todos los puntos de venta de la empresa distribuidora, puede extenderse la venta a otros puntos que lo deseen, instalados en zonas limítrofes con Bizkaia y de forma especial en aquellas zonas donde se ubican contingentes amplios de potenciales clientes.

4.3.6.5. La empresa distribuidora cuidará de que las entregas a sus puntos de venta permitan un nivel de existencias adecuado, sin producir desabastecimiento y con una respuesta acorde a la demanda.

4.3.6.6. En caso de falta o insuficiencia de tarjetas de "Creditrans" u otras para su comercialización en más de un 50% de los puntos de venta en un período mensual, *CTB* aplicará una penalización del 10% sobre la comisión de dicho mes, que será descontada de la liquidación que le corresponde percibir a la empresa distribuidora.

4.3.6.7. La empresa distribuidora facilitará a *CTB* información mensual de los pedidos servidos a cada punto de venta, mediante soporte magnético acompañado de los correspondientes listados, de acuerdo al formato establecido por *CTB*. Dicha información deberá realizarse

4.3.6.3. Enpresa banatzaileak gordailutan jasotako "Creditrans" eta BGPk sortutako beste txartelen ardura hartuko du, eta bere kontura banatuko ditu salmenta puntuetara. Sareko biltegien edo lokalen kokapena aldatzen bada, 10 egun lehenago jakinarazi behar zaio Bizkaiko Garraio Partzuergoari.

4.3.6.4. "Creditrans" txartelak enpresa banatzaileen salmenta puntu guztietan sal daitezke. Hala ere, nahi izanez gero, Bizkaiarekin mugakide diren beste puntu batzuetara heda daiteke salmenta, eta, bereziki, bezero asko egon daitezkeen lekuetara.

4.3.6.5. Enpresa banatzailea arduratuko da bere salmenta puntuetan txartelen stock maila egokia izateaz; beraz, hornidura gabe ez geratzeko, eskariaren arabera hornituko dituzte salmenta puntuak.

4.3.6.6. Hilabetean, salmenta puntuen %50ean baino gehiagotan "Creditrans" txartelak edo bestelakoak falta badira edo eskaria asetzeko adina ez badago, Bizkaiko Garraio Partzuergoak %10eko zigorra ezarriko du hilabete horretako komisioren gainean, eta enpresa banatzaileak jaso behar duen likidaziotik kenduko da zigor hori.

4.3.6.7. Hilero, enpresa banatzaileak salmenta puntu bakoitzari emandako txartel kopuruari buruzko informazioa emango diote BGPri. Euskarri magnetikoaren eta dagozkion zerrenden bidez emango dute informazioa, BGPk ezarritako formatuaren arabera. Hil



dentro del plazo de los 10 días siguientes a la finalización de cada mes.

#### 4.3.7. Informaciones adicionales

La empresa distribuidora colaborará con *CTB* en la medida de sus posibilidades en el conocimiento del mercado, mediante encuestas u otros medios similares en los puntos de venta. Además, facilitará a *CTB* cuantas informaciones adicionales relacionadas con la actividad "creditrans" y otros emitidos por *CTB* puedan serle requeridas, siempre que estén en poder de la empresa distribuidora como consecuencia de dicha actividad.

#### 4.3.8. Instalaciones, responsabilidades

4.3.8.1. Es obligación de la empresa distribuidora mantener en buen estado sus instalaciones, de forma que se faciliten y garanticen las operaciones de almacenamiento, distribución y venta de las tarjetas de "Creditrans" y otras en las condiciones pactadas.

4.3.8.2. En caso de incendio, avería, inundación o cualquiera otra causa de inutilización, será responsabilidad de la empresa distribuidora el abono del estricto coste de confección de las tarjetas inutilizadas.

4.3.8.3. En el supuesto de robo o hurto de tarjetas o billetes en cualquier punto de la cadena de comercialización, almacén, distribución, transporte, punto de venta, etc., la empresa distribuidora se obliga a asumir íntegramente el importe total de las tarjetas sustraídas al precio de venta al público.

bakoitza amaitu eta hurrengo 10 egunetan eman beharko dute informazioa.

#### 4.3.7. Informazio gehigarriak

Enpresa banatzaileak BGPri lagunduko dio, bere baliabideen arabera, merkatu ikerketak egiten; horretarako, inkestak edo antzekoak egingo ditu salmenta puntuetan. Horrez gain, "Creditrans" eta beste txartelen jarduerari buruz BGPk eskatzen dizkien informazio gehigarri guztiak emango dizkiote, betiere, jarduera horren ondorioz enpresa banatzaileen esku badaude.

#### 4.3.8. Instalazioak, erantzukizunak

4.3.8.1. Enpresa banatzailearen ardura da bere instalazioak egoera onean edukitzea, "Creditrans" txartelak eta besteak biltegiatzeko, banatzeko eta saltzeko eragiketak hitzartutako baldintzetan egin eta berma daitezen.

4.3.8.2. Suterik, matxurarik, uholderik edo instalazioak hondatzen dituen beste kausarik gertatuz gero, enpresa banatzailearen erantzukizuna izango da txartel hondatuen kostu zehatza ordaintzea.

4.3.8.3. Txartel lapurreta edo ebasketa gertatuz gero merkaturatze katearen edozein puntutan, dela biltegian edo banaketan, dela garraioan edo salmenta puntuan, enpresa banatzailea behartuta dago ostutako txartelen diru-kopuru osoa bere gain hartzera, publikoarentzako salmenta prezioan.



Se obliga, asimismo, a comunicar al *CTB* la cantidad y numeraciones de los billetes robados, tan pronto se detecte el incidente.

4.3.8.4. Serán de cuenta de la empresa distribuidora el pago de todos los impuestos, tasas, arbitrios y exacciones estatales, forales o municipales, así como la de obtener cuantas licencias, permisos o autorizaciones sean precisas.

#### 4.3.9. Publicidad, promociones, etc.

4.3.9.1. La empresa distribuidora puede realizar de su cuenta o colaborar con *CTB* en campañas publicitarias sobre la comercialización de las tarjetas “creditrans” y otras que venda emitidas por el *CTB*, promociones del servicio de transporte público de viajeros que utiliza estas tarjetas, etc. En este supuesto, *CTB* será advertido con suficiente antelación y tendrá capacidad para incorporar sus elementos de identificación o vetar su ejecución, si se justificase que podría comprometer su imagen o desarrollo de su política de transportes.

4.3.9.2. Asimismo, *CTB* se compromete a anunciar en las campañas publicitarias que realice, la venta del título en la red de distribución contratada.

4.3.9.3. *CTB* se reserva la capacidad de incorporar publicidad externa en las tarjetas, sin derecho por parte de la empresa distribuidora de participar en los ingresos que la misma pudiera devengar.

Behartuta dago, halaber, ostutako txartelak zenbat eta zer zenbakitakoak izan diren BGPri jakinaraztera.

4.3.8.4. Enpresa banatzaileak ordaindu beharko ditu zerga, tasa, ariel eta ordainarazpen guztiak, estatukoak, aldundietakoak nahiz udaletakoak. Horrez gain, enpresa banatzailearen ardura izango da beharrezkoak diren lizentzia eta baimen guztiak lortzea.

#### 4.3.9. Publizitatea, sustapenak eta abar.

4.3.9.1. Enpresa banatzaileak, bakarrik edo BGPekin lankidetzan, “Creditrans” eta beste txartelei buruzko publizitate kanpainak eta txartel horiek erabiltzen dituzten garraio zerbitzu publikoak sustatzeko kanpainak egiteko aukera izango du. Horrela, behar besteko aurrerapenez jakinarazi beharko dio BGPri, eta Partzuergoak bere identifikazio elementuak eransteko ahalmena izango du, edo kanpainari betoa jartzekoa, bere irudia edo bere politikaren garapena arriskuan jartzen duela justifikatuz gero.

4.3.9.2. Halaber, BGPk, bere publizitate kanpainetan, kontratatutako banaketa sareetan txartelak saltzen direla iragartzeko konpromisoa hartzen du.

4.3.9.3. BGPk beretzat gordetzen du txarteletan kanpoko publizitatea jartzeko ahalmena, eta enpresa banatzaileek ez dute publizitate horrek sor ditzakeen diru sarreretan parte izateko eskubiderik.



#### 4.4. Precio de la prestación

Cada una de las empresas distribuidoras percibirá una comisión fija, I.V.A. no incluido, del 4% (CUATRO POR CIENTO) sobre el importe de las ventas, al precio de venta al público, cualquiera que sea el volumen de recaudación.

En las operaciones de canje de billetes no válidos se fija una retribución, que percibirá cada una de las empresas distribuidoras, de 0,03 euros más el IVA correspondiente, por cada tarjeta canjeada.

El precio total estimado para esta contratación es el siguiente:

AURREKONTUA PRESUPUESTO	689.655,17 €
BEZ IVA	110.344,83 €
GUZTIRA TOTAL	800.000,00 €
AURREIKUSITAKO BALIOA BEZ KANPO VALOR ESTIMADO –IVA EXCLUIDO-	1.379.310,34 €

#### 4.5. Plazo de realización de la prestación

El plazo de la prestación del servicio será de un (1) año, pudiendo prorrogarse como máximo un (1) año más, salvo que una de las partes contratantes renuncie de forma fehaciente y por escrito a la mencionada prórroga, con al menos tres meses de antelación a la fecha de finalización del contrato.

#### 4.4. Zerbitzuaren prezioa

Enpresa banatzaileetako bakoitzak publikoarentzako salmenta prezioan egindako salmenten zenbatekoaren %4ko (EHUNEKO LAUko) komisioa jasoko du, BEZ kanpo, bildutako diru-kopurua edozein dela ere.

Baliorik gabeko txartelak trukatzeko eragiketetan, enpresa banatzaile bakoitzak 0,03 euroko ordainsaria jasoko du (gehi horri dagokion BEZ), trukaturako txartel bakoitzeko.

Kontratazio honetarako kalkulatu den guztizko prezioa honakoa da:

#### 4.5. Zerbitzua emateko epea

Zerbitzua emateko, urtebeteko (1) epea ezartzen da, eta gehienez ere, beste urtebete (1) luza daiteke. Hala ere, parte kontratatzaileetako batek, modu sinesgarrian eta idatziz, luzapenari uko egin ahal dio, gutxienez kontratua amaitu baino hiru hilabete lehenago jakinarazita.



## 5.- DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

Dentro del sobre "A" habrá de presentarse además de la documentación especificada en el Pliego de Prescripciones Administrativas y en la carátula, la siguiente:

- Memoria identificativa de la empresa distribuidora, en la que se describan las principales líneas de su actividad, su volumen de negocio, su infraestructura (instalaciones, medios de transporte y reparto).
- Documento acreditativo de las ventas de tarjetas Creditras y otras emitidas por el *CTB* en los años 2007 y 2008.
- Relación numerada, detallada y actualizada de sus puntos de venta y distribución

## 5.-AURKEZTU DOKUMENTAZIOA

## BEHARREKO

"A" gutun-azalaren barruan, Plegu Administratiboan eta bere karatulan zehaztutakoaz gain, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Enpresa banatzailearen identifikazio-txostena; bertan azalduko dira enpresaren jarduera-ildo nagusiak, negozio-bolumena eta azpiegitura (instalazioak, garraiobideak eta banaketa).
- Creditrans BGPk jaulkitako beste txartelek, 2007 eta 2008an, izandako salmenten egiaztagiria.
- Salmenta puntuen zerrenda zenbakitua, zehatza eta eguneratua.